



**Arartekoaren 2019S-2786-17 Ebazpena, 2019ko ekainaren 6koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio, berrius ditzala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri gisa bidegabe jasotako zenbateko batzuk itzultzeko betebeharra adierazten duen ebazpena; izan ere, ez da egiaztatu prestazioren bat bidegabe jaso denik.**

### Aurrekariak

1.- Herritar batek kexa bat aurkeztu du Arartekoan ez baitago ados Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria berriz abiarazteko izandako atzerapenari lotuta (etenaldi baten ondoren bere espedientea berrikusi ostean) eta bidegabe jasotako prestazioak (2.877,70 euro) itzultzeko prozedurari lotuta egindako jardunarekin.

2017/REV/045611 berrikusteko espedientearen testuinguruan eta 2017ko uztailaren 21eko ebazpenaren bidez, enplegu erakunde autonomoak kexagilearen prestazioak etenda jarraitzeko erabakia hartu zuen, arrazoi hauek direla eta:

*“No aportar en plazo la documentación requerida:*

*-Movimientos bancarios de las cuentas de AAA<sup>1</sup>.*

*-Nóminas de trabajo de AAA<sup>2</sup> en la empresa EEE.*

*-Solicitud de renovación firmada por el titular.*

*El derecho a PCV se suspende en el momento en el que se procede la suspensión de la RGI a la que complementa.”*

Kexagileak erakunde honi jakinarazi zion semeak enpresa horretan jasotako nomina aurkeztu zuela. Taberna bat da eta semea egun batez bakarrik egon zen lanean, baina hori ez zen agertu bere banku-mugimenduetan, probaldia zenez, egun hori ere ez ziotelako ordaindu.

Halaber, 2017ko irailaren 13an, kexagileak banku-datuak aurkeztu zituen, baita Lan Eskaeraren Alta eta Berritze Dokumentua (LEABD) ere (dokumentazioa aurkeztu izanaren agiriaren erregistro-zenbakia Lanbiden: 2017/305203).

---

<sup>1</sup> Kexagilearen semeari dagokionez

<sup>2</sup> Berriro, kexagilearen semeari dagokionez





Kexagileak helarazitako informazioaren arabera, baliteke eskatu zitzaion lan egiteagatiko diru-sarrerei buruzko informazioa epearen barruan ez aurkeztea; hala ere, azkenean, aurkeztu egin ditu semearen banku-mugimenduak, EEE enpresak igorritako nomina eta berritutako Lan Eskaeraren Alta eta Berritze Dokumentua (LEABD). Alokairu-ordainagiriei dagokionez, kexagileak esan du dagokion unean entregatu zituela; dena den, Lanbidek egiazta dezake ordainketak benetan egin direla, guztiak banku-transferentzia bidez egin dituelako eta banku-mugimenduak erregularitasunez aurkeztu dituelako.

Ildo horretan, kexa-idazkiari erantsitako dokumentuen artean, dokumentazioa entregatu izanaren egiaztagiri bat ageri zen (Lanbidek 2017ko ekainaren 21ean egindakoa), eta bertan adierazten da interesdunak *“2016/REV/092900 espedientea osatzeko, 2014/RGI/045204 espedienteko dokumentazioa aurkeztu duela”* (Lanbideko erregistro-zenbakia: 2017/209888). Ez zuen aipatzen kexagileak aurkeztutako dokumentazio zehatza.

Aldi berean, enplegu erakunde autonomoak emandako ebazpenaren bidez, adierazi du prestazioen titularrak guztira 2.877,70 euro itzuli behar duela: 1.627,70 euro diru-sarrerak bermatzeko errenta dela eta; beste 1.250,00 euro, berriz, etxebizitzarako prestazio osagarria dela eta. Ebazpenean ageri diren arrazoiak honako hauek dira, hurrenez hurren:

*“DBE Arrazoa: Titularra bere/besteren kontura lanean*

*EPO Arrazoa: Beste arrazoi batzuk EPO”*

Berrikusitako aldia 2016ko apirilaren 1etik 2017ko ekainaren 30era da.

Kexagileak, azkenean, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra adierazten duen ebazpenaren aurka, eta errekurtso hori ezesten zuen ebazpena jaso zen 2018ko azaroaren 19an.

2.- Azaldutako guztia aintzat hartuta, Arartekoak informazio eskaera bidali zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari. Gainera, ezer erabaki aurretik, gogoeta batzuk azaldu zituen prestazioak itzultzeko beharraren arrazoiari dagokionez.

Honako kontu hauek azpimarratu ziren:





- a) *Kexagileak aurkeztutako errekurtsuak ebazteko aurreikusitako eguna, bai etenaldia mantentzeari buruzko errekurtsuari, bai jaso behar ez zirela jasotako prestazioak itzultzeko beharrari buruzko errekurtsuari dagokionez, eta, hala badagokio, ebazpen horien kopiak.*
- b) *Zure iritzia, prestazioak erreklamatzeko eskatzen duten egoerei buruz Arartekoak helarazitako gogoetak direla eta.*
- c) *Kexagilearen titulartasuneko dirusarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria berriz ordaintzen hasteko aurreikusi den eguna.*
- d) *Kexaren xedearekin erlazionatuta dagoen eta gure jardunerako interesgarria izan daitekeen beste edozein inguruabar.*

3.- Lanbidek erakunde honi igorritako lehenengo txostenean informazio hau ematen zen:

*“Interesdunak, 2017ko martxoaren 21ean, DSBE eta EPO prestazioak kobratzen hastea eskatu zuen, eta Lanbideren erregistroetan ez da agertzen 2017ko apirilko berritze-eskaerarik; gainera, prestazioa kobratzea eten zitzaien aldia da.*

*Lanbidek, 2017ko uztailaren 21eko ebazpenaren bidez, kobratzeko etenaldiari eustea erabaki zuen, arrazoi hauek direla eta:*

*Eskatutako dokumentazioa epean ez aurkeztea.*

*-AAA-ren banku-kontuetako mugimenduak*

*-EEE enpresako AAAREN laneko nominak*

*-Titularrak sinatutako berritze-eskaera*

*Administrazio honek 2017ko maiatzaren 18an dokumentazio-eskaera egin ondoren, eskatzaileak ez zituen entregatu agiri horiek, eta hala agertzen da **2017ko irailaren 13ko Lanbideren sarrerako erregistroan.***

*Interesdunak DSBE eta EPO prestazioak berritzeko eta berriz kobratzen hasteko beste eskaera bat aurkeztu zuen **2017ko irailaren 13an, aurrez eskatutako agiri guztiak emanez, eta, hartara, prestazioa kobratzeko eskubidea justifikatuz.***

*Lanbidek, 2017ko abenduaren 21ean, ebazpena eman zuen prestazioa berriro kobratzen hasteko -2017ko irailaren 13tik aurrera du eragina- eta DSBE eta EPO 2017ko abenduaren 22an berritzeko.”*

4. Arartekoak egindako eskaerei behar bezala erantzun ez zitzaiela aintzat hartuta, bigarren informazio eskaera bat egin zen; horren bidez, izandako inguruabarretan kexagileak ustez bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharrari buruzko informazio zabalagoa eskatzen zen berriz, betekizunik ez zela galdu zirudielako.





Amaitzeko, erakunde honetan 2019ko otsailaren 7ko sarrera-erregistroa izanik, Lanbidek honako hau azaldu du:

*“XXXak jarritako errekurtsua ezetsi egin zuen 2018ko azaroaren 19an, eta interesdunari 2018ko abenduaren 5ean jakinarazi zitzaion. Hona ezestearen arrazoia:*

*Aurkeztutako errekurtsua eta espedienteko dokumentazioa ikusita, errekurtsua diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) itzultzeko prozedura (REI) baten aurka jarri dela egiaztatu da.*

*REI horrek aurreko prozedura baten du jatorria (2017/REV/045611) eta horren ebazpena errekurtsogileari jakinarazi zitzaion 2017ko abenduaren 6an. XXX kalea, Bilbao.*

***REI hori berrikuspen irmoaren jarraipena baino ez da. Hori del eta, ezin da jokatu bigarren instantzia bat egongo balitz bezala, jada eztabaidagaitzat hartzeko aukera izan dena berriro eztabaidatzeko, irmotasun administratiboa irabazi baitu; beraz, ezingo da funtsezko arrazoirik alegatu ebazpenaren aurka.”***

Horrenbestez, beharrezkoak diren egitate eta zuzenbide elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

### Gogoetak

1.- Kexagilea ados ez izateko arrazoia da, erakunde honek Lanbideri helarazi dion moduan, alde batetik, etenaldi baten ondoren bere prestazioen ordainketa berriz abiarazteko izandako atzerapena, eta bestetik, etenaldia eragin zuten arrazoi berberak prestazioak bidegabe sortu izana. Kexa jarri eta handik hilabete gutxira, interesdunak erakunde honi adierazi zion enplegu erakunde autonomoak bere prestazioen ordainketa berritu zuela 2017ko abenduaren 22ko ebazpenaren bidez, hau da, etenaldia agindu eta bost hilabetera, ondorioak irailetik aurrera izanik.

2017ko uztailaren 21eko ebazpenaren bidez Lanbidek agindutako etenaldiaren arrazoia hau izan zen: prestazioen titular den bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerei eta alokairuaren ordainketaren egiaztagiririari buruzko dokumentazioa aurkeztu ez izana.





lido horretan, garrantzitsua da gogoraraztea bizikidetzaren unitate batean egon daitezkeen diru-sarrerak aldatzeari buruzko informazio guztia emateko betebeharrak diru-sarrerak bermatzeko errenta erregulatzen duen araudian jasotzen dela, hemen, zehazki: Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko Legeak (maiatzaren 25eko 147/2010) 12.1.f) 2 artikuluan. Aldaketa horiek jakinarazteaz gain, araudiak prestazioen titularra behartzen du administrazioak (urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 18. artikulua) eskatutako dokumentuak aurkeztera.

Etxebizitzari buruzko gastuetan, etxebizitzarako prestazio osagarriari buruzko Dekretuak (urtarrilaren 12ko 2/2010) 5.b) artikuluan agintzen da etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrak izan ahalko dutela, besteak beste, betekizun hauek betetzen dituzten pertsonak:

*“b) Titularra 4. artikuluan jasotako etxebizitzaren edo ohiko bizilekuaren gastuak ordaintzeko premian egotea, eta premia hori ohiko bizilekua duen udalerriko gizarte zerbitzuek egiaztatu beharko dute.”*

Horri lotuta, dekretu beraren 19. artikulua honako hau eskatzen du:

*“1.– Prestazioa emateko ebazpenean, etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrak, sei hilez behin, etxebizitzako edo ohiko bizitokiko alokairu gastuen ordainagiriak aurkeztu beharko ditu bere udalerriko oinarrizko gizarte zerbitzuan: ordainagiri pribatuenak, fakturenak edo bankuko ordainketenak. Sei hilez behingo aldizkakotasun hori egoki jotzen den bezainbeste laburtu ahalko da mugikortasun handia ikusten den kasuetan, eskatzailearen ohiko bizileku-aldaketekin.*

*2.– Gastuak egin izanaren ziurtagirietan pertsona fisiko edo juridiko igortzailearen identifikazio eta kokapenari buruzko oinarrizko datuak jaso beharko dira, identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) edo nortasun agiri nazionala (NAN), gastuaren kontzeptua eta haiei dagokien zenbatekoa barne.*

*3.– Bankukoak ez diren ordainketetan, pertsona fisikoen ordainagiriekin haien hartze-agiriaren sinadura jaso beharko dute, eta pertsona juridikoei dagokienez, aplikatu beharreko araudiaren arabera egin beharreko faktura aurkeztu beharko da, eta alokairuaren zenbatekoa ordaindu dela jasoko da.”*

Enplegu erakunde autonomoak erakunde honi eman dion informazioaren arabera, kexagileak 2017ko iraila arte ez zuen aurkeztu bere bizikidetzaren unitatearen diru-





sarrerei nahiz etxebizitzari buruzko gastuei lotutako dokumentaziorik; data horretan, Lanbidek prestazioak ordaintzen hasi zen berriro, lehen jadanik aipatu den moduan.

Kexagileak aitortu du ez zuela dokumentaziorik aurkeztu horretarako finkatutako epean. Beraz, Arartekoak uste du Lanbidek araudiaren arabera jokatu zuela kexaren xede den etenaldia erabaki zuenean; izan ere, kexagileak ez zuen epearen barnean bete administrazioak eskatutako dokumentazioa aurkezteko betebeharra, hau da, bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak zehaztu ahal izateko eta etxebizitzarako prestazio osagarria alokairua ordaintzeko erabiltzen ari dela egiaztatzeko.

Halaber, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko Dekretuak (maiatzaren 25eko 147/2010) 46. artikuluan agindutako aurreikuspena bete zuen Lanbidek: “Diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea eragin zuten arrazoiak desagertzean, foru-aldundiak, ofizioz edo alderdi batek eskatuta, egiaztatu egingo du une horretan prestazioa ordaintzeko baldintzak gertatzen ote diren eta, hala badagokio, prestazioaren zenbatekoa ezarri. Horretarako, dekretu honetako 53., 54. eta 55. artikuluetan ezarritako prozedura-arauak aplikatuko dira.”

2. Prestazioak itzultzeko prozedurari dagokionez, Arartekoa Lanbideren jardunarekin ez dago erabat ados. Arartekoaren aburuz, kexagileak ez ditu bere betebeharrak bete; zehazki, ez ditu epearen barnean aurkeztu, alde batetik, bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerei buruzko dokumentazioa, eta bestetik, etxebizitzako edo ohiko bitokiko alokairuko gastuen ordainagiriak.

Erakunde honek, jakina denez, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria arautzen duten araudiari buruz egindako interpretazioaren arabera, ezin daiteke automatikoki ondorioztatu bidegabe jasotako prestazioak sortzen direnik prestazioak eteteko edo iraungitzeko edozein prozeduraren ondorioz, baldintza bat gaineratu baitu: diru-sarrerak bermatzeko errenta bidegabe jaso izana egiaztatu behar dela.

Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko Dekretuak (147/2010) 57. artikuluan eta etxebizitza gastuetarako prestazio osagarriari buruzko 2/2010 Dekretuan honako hau agintzen da:

*“1– Aldatzeko, eteteko edo iraungitzeko prozedura baten ondorioz edo beste edozein egoeragatik diru-sarrerak bermatzeko errenta **bidegabe jaso dela egiaztatzen bada, titularrak bidegabe jasotako prestazioak edo***





*prestazioarengatik bidegabe jasotako zenbatekoa itzuli behar dituela ezarriko du foru-aldundi eskudunak.(...)”*

**Hau da, prestazioa bidegabe jaso dela “egiaztatu” behar da itzultze-prozeduraren barruan sar daitezen.**

Arartekoak dagoeneko behin baino gehiagotan adierazi izan du ez dagoela ados diru-sarrerak bermatzeko errenta edota etxebizitzarako prestazio osagarri gisa jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra sortzen duten arrazoiei buruz Lanbidek egindako interpretazioarekin; honako dokumentu hau nabarmendu behar da: *Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017* —ikus aldaketarako proposamenei buruzko atalaren 3. puntua, 94. orrialdea eta ondorengoak—, eta baita, besteak beste, Arartekoaren 2018S-2349-16 Ebazpena, 2018ko martxoaren 13koa. *Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio berrikus dezala kexagileak etxebizitzarako prestazio osagarriagatik bidegabe jasotako diru-kopuruak itzuli beharra adierazi izanaren ondorioz itzuli beharreko diru-kopurua.*

Bi aukeretan erakundeak bere gogoetak helarazi ditu betebeharrak eta betekizunak ez betetzen artean dagoen aldea bereizteko beharrari dagokionez, prestazioak bidegabe jaso diren ala ez erabakitzeke asmoz. Behin eta berriro adierazi den moduan, araudia nahasgarria da eta gabezi larriak ditu; beraz, azpimarratu da arauak zehatzago finkatu beharko zituela bidegabe jasotako prestazioak itzuli beharreko kasuak, eta kasuak bereiztea, batetik, baldintzak galtzen direnean, eta bestetik, etetea erabakitzeke zioaren arrazoia betebeharrak ez betetzea edo beste edozein egoera denean. Horregatik, aurreko agindu horrek adierazitakoa azpimarratu nahi du erakunde honek; hark ezartzen duenez, **bidegabe jasotako prestazioaren aurretiazko egiaztapena** egitea beharrezkoa da prestazioa itzultzeko betebeharraren funtsezko faktore gisa eta, horri esker, erakunde honek gogoeta hau egin dezake: bete behar bat ez betetzeak, etxebizitza aldatzeak, esaterako, esan nahi duen automatikoki prestazio bat bidegabe jaso dela diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izateko betekizun guztiak betetzen direnean.

Aurreratu zen moduan, hizpide dugun kasuan, kexagileak, berandu bada ere, beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu du Lanbidek bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren berri izan zezan, bai eta egiaztatzeke ere, etxebizitzarako prestazio osagarria aurreikusitako helbururako erabili zela, hau da, bizitokiko gastuak ordaintzeko.





Betebehar bat ez betetzeagatik etenaldia eragin duten ondoreak ezartzen ditu araudiak, eta horiek interesdunak jasan ditu prestazioa etenda izan zuenean 2017ko uztail, abuztu eta irailean; hortaz, hiru hilabeteko etenaldia izan zen.

Arartekoaren ustez, erreklamatzeko diren prestazioak neurritz kanpokoak dira. Hain zuzen, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrek edo bizikidetz-unitateko kideek, **eskubidearen titular izateko betekizunak betetzen jarraitzen dutenean**, haiek ez betetzeko erakusten duten jokabide zehatzen ondorioz, erantzunak proportzionaltasunaren printzipioa urratzen du, alde batetik, prestazioaren ordainketa etetea dakarrelako, eta bestetik, prestazioak itzultzeko betebeharra.

**3.** Kexagileak jarritako aukerako berraztertze errekurtsoa ezestea ebatzi du Lanbidek. Lanbidek erakunde honi helarazitako erantzunean, diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko aurreko ebazpena aipatu da, eta ezin dira zalantzan jarri bidegabe jasotako prestazio gisa zorra eragin duten arrazoiak aurrez ebazpen irmo bat dagoenean eta handik sortu denean zor hori. Erakunde honen bigarren informazio eskaerari Lanbideko zuzendari nagusiak emandako erantzunean, honako hau adierazten zen: ***“REI hori berrikuspen irmoaren jarraipena baino ez da. Hori del eta, ezin da jokatu bigarren instantzia bat egongo balitz bezala, jada eztabaidagaitzat hartzeko aukera izan dena berriro eztabaidatzeko, irmotasun administratiboa irabazi baitu; beraz, ezingo da funtsezko arrazoirik alegatu ebazpenaren aurka.”***

Erantzun hori Lanbidek hartutako jurisprudentziazko jarrerarekin bat dator. Horren bidez, prestazioak erreklamatzeko prozedurak haiek aldatzeko, eteteko edo iraungitzeko prozedurari jarraipena ematen dio; horrenbestez, diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko edo iraungitzeko ebazpen irmo bat egotea prestazioak itzultzeko betebeharra erabakitze nahikoa titulu da.

Interpretazio hori berresten duten epai judizialen berri izan du Arartekoak, eta haien artean dago justizia auzitegi nagusiaren 2018ko abenduaren 11koa; horren bidez, apelatutako epaia berresten da eta prestazioa itzultzeko betebeharra adierazten duen ebazpena honela ulertzen: *“un acto de ejecución de aquél que determinó el cese definitivo del subsidio y la obligación de reintegro de prestaciones indebidas (...)”* eta iruditzen zaio *“...el acto precedente no puede ser impugnado por motivos de ilegalidad que afectaba al que resulta ejecutado, salvo cuando éste no hubiera sido notificado o cuando adoleciera de vicios determinantes de nulidad absoluta o incurran en una extralimitación objetiva respecto del acto que les sirve de título”*.







Adierazi behar da, dena den, askotariko erabaki judizialak izan direla, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegiaren epaiak (2019ko otsailaren 12koa) jasotakoa, esate baterako. Epai horretan, bidegabe jasotako prestazioak itzuli behar direla erabakitzeko arrazoiak aztertzen dira; izan ere, uste du eteteko ebazpenak ez zituela ukitzen bidegabe jasotako zenbatekoak betebeharra betetzen ez zenean edo betekizuna aldi baterako ez zegoenean.

Irizpide desberdintasun honek agerian uzten du araudiaren egungo aplikazioa ulertzeko dauden hainbat modu. Nolanahi ere, une hauetan badirudi jarrera hau nagusitzen dela: itzultzeko ebazpenaren izaera aurreko etete edo iraungitze ebazpenaren ondorioa izatea; horrenbestez, hura aurkaratu zenean eta ezesteko administrazio-ebazpena jaso zuenean edo bide judizialean, edo irmo bihurtu zenean, bi kasuetan, Lanbidek eta auzitegiek ez dakite zein diren eteteko eta iraungitzeko erabakia hartzeko arrazoiak, eta egoera horrek, hain zuzen, eragin du prestazioak erreklamatzeko prozesura bat eskatzea. Beraz, uste da eteteko edo iraungitzeko ebazpen hori **prestazioak itzuli behar direla adierazteko nahikoa titulu dela**.

Erakunde honek Lanbideri jakinarazi dio doktrina judizial hori aplikatzeko Lanbideren administrazio-prozeduretan doikuntzak egin behar direla berme-emaileak izateko, batez ere, gizarte bazterketa arriskuan edo egoeran dauden pertsonen oinarritzko beharrei erantzuteko eskubidea onartzen baitute.

Alabaina, espediente honetan, aurreko paragrafoetan garatu den moduan, Arartekoak prestazioak itzultzeko adierazpena egin behar ez izana interpretatzeko arrazoiak honekin dute zerikusia: prestazioen titularrak betebeharrak ez zituela bete (betekizunak bete zituen) eta, beraz, etenaldi hau zio zuen itzultzeko prozedura bat ere ez zela eskatu behar; azpimarratu da etenaldiaren oinarria izan zela dokumentazio jakin bat epearen barnean aurkeztu ez izana, hura *a posteriori* aurkeztu zela eta egiaztatu zela ez zuela garrantzirik interesdunaren betekizunak betetzen ziren erabakitze aldera. Hortaz, erakunde honek beharrezkotzat jotzen badu ere jurisprudentziako doktrina horren gaineko gogoeta bat egitea, prestazio sozialen kudeaketan aipatzen diren ezaugarriak eta konnotazioak kontuan hartuta, ez da hau prestazioak itzultzeko iradokizuna egiteko arrazoi nagusia, honako hau baizik: prestazioak bidegabe jasotzeko arrazoirik ez izatean, Arartekoaren ustez, ondorio horietarako prozedura bat ere ez zen abiarazi behar.

**4.** Laburbilduz, Arartekoaren aburuz, Lanbidek eskatutako dokumentazioa kexagileak xede horretarako emandako epean aurkeztu ez arren, egoera horrek





betebeharrak ez betetzea dakar, baina ez du zertan bidegabe jasotako prestazioak sortu behar; horregatik, **Lanbidek ez zuen arrazoi horiengatik abiarazi behar prestazioak itzultzeko prozedura bat, are gehiago arrazoi berberengatik kexagilearen prestazioak 3 hilabetez ordaintzeari utzi zionean.**

Nolanahi ere, behin prozedura hori abiarazita, betekizun guztiak bete zituela frogatzeko kexagileak aurkeztutako alegazioak eta dokumentazioa baloratu behar zituen, hau da, betebeharrak bakarrik utzi zuen bete gabe eta, hala, **prestazioak itzultzeko prozedura baliogabetu beharko zen nahiz eta pentsatzen jarraitu kexagileak prestazioen etetea merezitzeko jardun bat egin zuela (147/2010 Dekretuaren 43. artikulua araberan).**

Horregatik guztiengatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11. b) artikuluan ezarritakoaren araberan, iradokizun hau egin nahi diogu sailari:

### IRADOKIZUNA

Arartekoak iradokitzen du, aurreko gogoetei erreparatuz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri gisa adierazitako zenbatekoak itzultzeko betebeharrak adierazten duen ebazpena; izan ere, uste du ez dela egiaztatu bidegabe jasotako prestaziorik jaso denik, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko Dekretuak (maiatzaren 25eko 147/2010) 56. artikulua aplikatuz.

